

Zuhertza
Muz deba

euskara
elkartea

berriketan.eus

Berriketan


Debako herri aldizkaria

275. alea - 2022ko uztaila

**Irene
Sarrionandia**
Kirolaria

**Berrogei urtez
maldaz malda
bidea egiten**






**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

REGISTRATU
EUSKAL
OKELA

CRIBE DE VINO DE CALIDAD
DOP DVS VINO
EUSKO LABEL



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



SO URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Oartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



LK Home

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com



SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ

Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgoabogados.eus

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f @



ARENA BAR



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

f @

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00ETATIK AURRERA

PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAR



275. alea - 2022ko uztaila

AURKIBIDEA



ALBISTEAK | 8

Sara Berasaluce eta Yone Estivarizen *Ohiko lekuak* ikusgai elizako klaustroan



IRUDI-GALERIA | 10

Kolorez Blai euskal udalekueetan ateratako argazkien bilduma



ERREPORTAJEA | 16

Ozio-Bide elkartearen ibilbideaz eta jardunaz bere 75. urteurrenean



KOPRAIXAK | 18

Abuztuaren 5etik 10era ospatuko dira Itziarko Kopraixak; egitaraua zuen eskura



SAN ROKEAK | 20

Abuztuaren 14tik 18ra jai giroan murgiltzeko prest dago Deba; egitaraua zuen eskura

Berriketan

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com



Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-200

Inprimategia: Gertu

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

LAGUNTZAILEAK:



DEBAKO UDALAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

ieraenea
ekodenda

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 913 53 95 20- E-mail: ieraenea@gmail.com

kutxabank

ENDÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria 3000m²

Itziarko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com


ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali berriketan@zuhatza.com helbidera.

Berriketan aldizkariaren hurrengo alea irailan

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du **Berriketan** herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren 5ean oporrak hartuko ditugu erredakzioan, baita Zuhatza Euskara Elkartean ere; hori dela eta, abuztuan ez dela hilabetekaria

kaleratuko gogorarazi nahi dizuegu. Hurrengo alea, paperezko edizioan, irailaren amaieran plazaratuko dugu.

Irailaren hasieran izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian.

Ordura arte, ondo izan eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, guk geuk nahiago euskaraz!

Zuhatza Berriketan

Etxera bidea gertu!



“Etxera bidea gertu!” lemapean, uztailearen 22, 23 eta 24an Hego Euskal Herriko lau probintziak zeharkatu ditu Sareren bosgarren bizikleta itzuliak. Pedalkadaz pedalkada, bizikidetzeta, bakea eta euskal presoen etxeratze-prozesua bultzatuz iritsi ziren Debara 23an eta pasealeku estalian bazkaldu ondoren jarraitu zuten beren bidea, aldarria soinean eta lagun arteko giro ederrean.

Giza eskubideen alorrean aldaketak

gertatzen ari diren arren, aldaketa horiek motelak eta trabaz beteak izaten ari dira; horrek esan nahi du oraindik ere bide luzea dugula egiteko, benetan salbuespen-legedia atzean utzi eta legedi arrunta ezarri dadin.

Asko dira oraindik, baldintza guztiak bete arren, baimenak eta 3. graduak eskuratzeko oztopoak izaten ari diren presoak. Era berean, baimen horiek eskuratuta ere, Auzitegi Nazionala baliatuz, atzera bota eta berriro espetxeratuak izaten ari diren presoak ere badira. Euskal

Herriratzei dagokienez, oraindik % 36a hemendik kanpo aurkitzen da.

Horregatik, etxera bidea egiteko prest gaudela eta etxera bidea gero eta gertuago dagoela aldarrikatuz jarraituko dugu. Abuztuaren 20an, larunbata, manifestazioa egingo da Donostian (12:30ean, Bulebarretik abiatuta), eta urriaren 8an ere aldarrikapen berberak hartuko ditu Gipuzkoako hiriburuak, bertan egingo den mobilizazio eta jaialdiarekin. ZATOZ GUREKIN!

Debako Sare

Bidelagun izaten jarraitzen duzu, Mikel



Negar egin dezakegu joan zarelako edo barre egin bizi izan zarelako.

Begiak itxi eta itzuli zaitezen otoitz egin dezakegu edo begiak ireki eta utzi duzun guztia ikusi dezakegu.

Gure bihotzak hutsik egon daitezke, ezin zaitugulako ikusi,

edo partekatzen dugun maitasunez beteta egon daitezke.

Negar egin dezakegu, gure gogoia itxi eta hutsunea sentitu, edo gustatuko litzaizukeena egin dezakegu: irribarre egin, ireki begiak, maitatu eta aurrera jarraitu.

Eta bizitzak zuk alde egitea nahi izan zuen arren, gure poztasun eta garai tristeetan bidelagun izaten jarraitzen duzu, beti egin genuen bezala, behar den bezala, oraindik ere, maite zaitugulako.

Marian Larrañaga



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



API
Nº. 379

Higiezin Zerbitsuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3 20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Aldaketa badator; gure esku dago gurean azkartzea

Geldialdi goibelaren ostean, bada-
toz San Rokeak; poza nonahi.
Geldialdi pozgarriaren ostean, bada-
toz zezenketak; zortzi zezenen hilketa
jendaurrean.

Horregatik, abuztuaren 16 eta
18an, 17:00etan, plazan, ermita aurre-
an, kontzentrazio isilak egingo ditugu.

Gure nahia ez da inori iritzia alda-
raztea; beti beste aukera eta ikusmolde
batzuk, gauzak egiteko beste modu
batzuk egin nahi izan ditugu ikusgar-
ri: kontzentrazio, kartel, pankarta,
muralen bidez. Gune bat eskaini, lan-
tzen hasitako lur bat, daukaguna jus-
tua ez dela pentsatzen duenari, ezarri-
tako errealtateak aldagarriak direla
sinesten duenari...

Aldaketa badator eta, berez.
Ezarian, erortzen doaz plazetako



murruak: San Ferminetako kontzertu
nagusian parte hartzeko eskaera jasota,
izen handiko hainbat artistak argi
laga zion Mayari ez zuela egitarauan
zezenketak dituzten jaietan parte har-
tuko; Bryan Adamsek ere uko egin
zion Illescako zezen-plazan jotzeari
eta estadio batean jo zuen; Mexiko
zezen-plazan (munduko handiena) ez
da gehiago zezenik hilko; Iruñea
Antitaurinak peñei idatzia aurkeztu
die gogoetarako deia eginez, eta infor-
mazioa eskatu du hainbatek...

Herrian plaza berrizteko proiektua
aurrera doan honetan, beste ekitaldi
batzuetarako ERE ba omen den plaza,
beste ekitaldi batzuetarako SOILIK
izatea da herritar askoren nahia. Segur
aski, horrela askoz merkeagoa litzate-
ke, gainera.

Koherentzia altxor urri bihurtua
den garai modernotan, oinarritzoe-
tarako aldarria egingo dugu plazan.
Muraleko neskak egiten duen gisara,
beste animaliei, eta, batez ere, garena-
ri, begietara begiratu ahal izateko.

Debako zezenketen aurkako taldea

EUSKERAZ BAGERA

MATERIAL SALMENTA

Deba-Reus Topaketan

Abuztuak 13
13:00 Foruen plazan

12€

2,5€

Zuhertza
M.C. Deba

euskara
elkartea



LUKAX DORRONSORO

Pasiatzera...

...goazen Mutriku aldera... Gerra
usaineko abesti herrikoitua. Zer egiten
zuten bestela aireplanoek Mutriku
aldeko uretan? Nolanahi ere, hori ez da
kuestioa; pasiatzera doa Debako jen-
dea udaberriz eguzki giro argia egon-
kortzen hasi orduko negu hotz goibele-
tik ihes. Itsasertza eta itsasoa beti zer
ikusia eskaintzen; beti berbera, beti
berria, beraz, *pasiatzera, goazen...*

Bai, Deba ibaiak pasatzen uzten
badigu. Noizbehinka puskatu egiten
digu zubia eta, horra!, bi urtez eutsi
behar izan diote burdinazko tramanku-
lutzarrarekin itsasoak eraman ez
dezan, haren gainetik ibili behar izan
dugu bi aldeetako jendeok neke eta
arriku artean.

Bukatu dute behintzat uda hasi
aurretik. Eta polita geratu da benetan,
ea urak bezain indartsu irauten duen...

Atseginez egon zaizkit luzaro
begiak zubi dotore berrituari so; sudu-
rra, ordea, ez! Atzeraka egin dit soinak
ibaitik edo zetorren kiratsak eraginda.
Eta ez da gaurko kontua, ezta oraintsu-
koa ere, aspalditik dakartza ibaioko
urak usain txar eta era askotako kolore-
ak, ekaitz-urek euren dutena ez beza-
lakoak.

Gaur arratsaldeko seietan
Casacampo aldera nindoala gazte mul-
tzo bat ikusia dut zubi gainetik ibaira
salto eginez. Kiratsera ohitu egin da
nonbait alde horretan maiz dabilen jen-
dea. Agian ez da osasunarentzat batere
kaltegarri eta horregatik dabil jendea
kexa gabe. Bestela osasunaren ardura
duten herri-langile eta politikariek
bilatuko zioten dagokion konponbidea
hain nabaria eta iraunkorra den gertae-
ra desatseginari. Nolanahi ere:

pasiatzera, goazen...



ITZIAR ARANA

Foka

Marea biziek beraien igerialdian desbideratuta edo gaixorik daudelako, tarteka fokaren bat ikusi izan dugu portuan. Horrelako bisitak ume eta nagusiontzat gustukoak izaten dira, dokumentaletan ikusten dugun anomalia begien aurrean gozatzeko aukera bakarrenetakoa. Hor hurreratzeko gara kamera eta mobilak esku artean ditugula, argazki eta bideo festa mar-txan ipintzeko.

Itsas-zakurra entzun eta gure iru-ditegian alderdi positibo asko aurkitu-ko ditugu: samurtasuna, jolasteko gogoa..., baina kontrako intentzio eta eragina ere sortzen ditu. Izan ere, "ederrak" garenoi min egiteko, dardo eran, bota izan zaigu behar baino gehiagotan "foka" hitza. Itxura batean iraingarria dela ezin uka daiteke, baina ezjakintasunak eraman gaitu horrela ulertzera. Fokak duen grasa eta forma biribila naturak duen sorkuntzarik argienetakoa baita hotzari eta harrapa-kariei ihes egiteko.

Egia esan, iraintzeko gure inguru-ruan gaztelaniara jotzen da, ustez gure hizkuntza biraorik gabekoa delako. Juramentuka jardutea politikoki zuzena ez den arren, aitortu beharko dugu denok aritzen garela noizbehinka. Hori horrela izanda, hobe betiko legez gorrian jardun sutzean: hankamehe, hankazikin, belarrihandi, belarriluze, buruhandi, ipurdihandi, muturzikin, muturluze, muturbero, tripahandi, ahohandi, burugabe, gibelhandi, ipur-terre, potroso, pupuhandi, tximaluze, gazta, meloi, melontzio, harroputz, artoburu, babalore, hitzontzi, kakontzi, lotsagabe, mainontzi, pixontzi, txo-riburu... baina ez fokaka.

Amagoia Arrieta Bocciako Munduko Kopako txapeldunorde izan da



Uztailaren 3tik 11ra Portugalgo Povoa de Varzim hirian jokatu den Bocciako Munduko Kopan zilarrezko domina konkistatuta, rankineko lau jokalaririk onenen artean kokatzen duten puntu garrantzitsuak gehitu ditu Amagoia Arrietak.

Tokioko Joko Paralinpikoetatik hurbil geratu zen Arrieta, eta azaroan Europako Txapelketan brontzearekin podiumera igo ostean, orain, domina berri honekin, Paris 2024rako bideari modu paregabean ekin dio.

BC1 kategorian eskuratu du domina; kategoria horretan bola esku edo oinarekin botatzen da eta laguntzaile baten laguntza izan daiteke aulkia doitzeko edo bola pasatzeko. Hala ere, txapelketa honetan Arrietak ez du Javier Camacho, bere erreferentziazko teknikaria, izan alboan eta horrek meritua gehitzen dio lorpenari.

Azken domina honi esker, Arrasate Aspaceko kirolari debarrak bost domina eskuratu ditu denera bocciako nazioarteko lehiaketetan.

Irailaren 17an izango dira VI. Debabarrena Raida eta VIII. Flysch Beltza Trabiesia

Irailaren 17an, larunbata, izango dira bai VI. Debabarrena Orientazio Raida bai VIII. Flysch Beltza Trabiesia, eta biek ere zabalik dute izen-ematea.

Raidaren kasuan, oraingoan ere irteera eta helmuga Deban izango ditu. Informazio gehiago lortu eta izena

eman ahal izateko www.debabarrena-raid.wordpress.com atarira jo daiteke.

Igeriketa zeharkaldiak bi ibilbide ditu aukeran: 11:00etan Saturrarán-Deba (6.500 m) edo 12:00etan Mutriku-Deba (3.000 m). Izena emateko: www.flyschbeltzatrabesia.wordpress.com.

Abuztuaren 5ean odola emateko deia egin dute, oporraldian ere odol-premia asetzeko

Uda sasoian odol-premia areagotu eta emaleak gutxitzen direla-eta, odola ematera joateko dei berezia egin dute Euskal Herriko Odol Emaileen bankuek.

Deban abuztuaren 5ean egingo dituzte odol-ateratzeak Luzaro ikaste-txean. 16:30etik 20:30era bitartean arituko dira osasun arloko profesionalak lanean, baina antolakuntza lanak errazteko aurrez izena emateko eskatu dute elkartetik. Ordua eskatzeko 612 402 103 telefono zenbakira deitu behar da, abuztuaren 1etik 4ra (16:00etatik 20:00etara) edo bestela WhatsAppa idatzi.

Sasoi honetan ohi denez, dei berezia egin du Gipuzkoako Odol Emaileen

bankuak, odola ematera joateko. Herritar ugari oporretara joaten denez, odol-erreserbak ziurtatu egin nahi dituzte, ospitaleetan odol beharra ez baita txikiagoa izaten uda izan arren. "Argi dago odola behar dugunean egoitea nahi badugu, ardura denona dela. Kontua ez da-eta gutxi batzuek dena ematea, askok gutxitan eman behar izatea baizik", adierazi dute Debako Odol Emaileen Elkartetik.

Bestalde, Euskadiko Odol Emaileen elkarteak bere webgunean eguneratzen ditu erreserba mailak. Horrela, noiz eta zein odol taldeetako donazioak behar dituzten ikus dezakete herritarrek.

“Album” antzerkiak emango dio amaiera Iturri Ondoan egitasmoari



Lau ostiral eta beste hainbeste kultur ekimen ekarri dizkigu orain arte aurtengo Iturri Ondoan egitasmoak. Euskal kultura sustatzea helburu duen ekimen sorta uztailearen 1ean hasi zen eta hilaren 29an amaituko da.

Uztaileko ostiral gauetan izan dira emanaldiak, 22:00etan guztiak ere, eta, kokalekuari dagokionez, jatorrizko lekura itzulita, hau da, Plaza Zaharreko iturri ondora. Bederatzigarren edizioa

izan du aurtengoa Iturri Ondoan-ek, eta hainbat diziplinako saioak izan dira ikusgai: bertsolaritza, literatura, dantza eta musika.

Hilaren 29an, ekimenari amaiera ematera datorrena, berriz, *Album* antzerkia izango da. Lan honekin gazteak datoz oholtza gainera gazteez mintzatuz, hots, beren buruez; Formol Laborategiak sortutako antzezlan aurreratu dute.

Gure Giroren azken ekimenek herriko kultur eszena saretzen jarraituko dute

Zinema, musika, tailerrak, irteera gidatuak... askotariko hitzorduak ditu bere baitan uztailearen 3tik 30era bitartean burutzen ari den Gure Giro programazioaren bigarren edizioak. Kultur Elkarte, Debako Gazte Asanblada, Jazzez Blai, Debadezine eta Zuhatza Euskara Elkarteak elkarlanean osatutako egitaraua du ardatz egitasmoak.

Azken hiru ekimenek gozatzeko aukera bada oraindik. Uztailearen 27an, Asteazken Akustikoetan, Itsaso eta Martina bikoteak kantaldia eskainiko du 22:00etan, Gaztetxean.

Hilaren 28an, osteguna, udako zinemaren baitan, *Delicioso* filma ikusi ahal izango da, 22:00etan, Kultur Elkarteko plazan.

Eta, azkenik, uztailearen 30ean, larunbata, *Atalayas balleneras* izeneko irteera gidatua izango da Mendatako bale-talaiara Alex Turrillasen eskutik 10:00etan, Itxaspeko kanpinetik abiatuta. “Bailearen ehiza eta merkataritza Debako ekonomiaren lau hanketako bat izan zen iraganeko; kulturaz jantzitako goiz ederra pasako dugu”, Turrillasen hitzetan.



JON AMUTXASTEGI

Beldurrak kenduz

“Nik ez dut horrelako ezer behar”. Zenbat aldiz entzun dudanez esaldi hau psikologoarengana joatea gomendatzen dudanean. Harrotasunez erantzuten dute askok, terapiara joateagatik ahulagoa izango bazina bezala. “Ez nago zoro, zertarako joan behar dut *lokeroarengana*”, erantzuten dute beste askok. Ni duela bi urte hasi nintzen psikologoarengana joaten, eta harrotasunez diot azken urteetako erabakirik onena izan dela. Are gehiago, guztiok egin beharko genukeela uste dut.

Estigmatizatuta dago terapiara joatea. Badirudi zure buruaz beste egiteko moduan egon behar zarela horretarako. Etxetik atera gabe depresio erraldoi batean murgilduta ez bazaudete pentsaezina dela dirudi. Zergatik ez goaz psikologoarengana benetan gaizki egon aurretik? Zergatik ez dugu gure osasun mentala noizbehinka zaintzen dentistarekin, medikuarekin edo okulistarekin urtero egiten ditugun osasun-azterketetan bezala?

Badakit ez dela erraza pausoa ematea, ezta merkea ere, baina bada garaia gure osasun mentala zaintzen hasteko. Bada garaia gelditu eta geure bizitzak erdigunean jartzeko, terapia normalizatzeke, eta osasun sistema publikoak esparru honetan duen hutsune hori betetzeko.

Urte eta erdi pasatu da azken aldiz psikologoaren kontsultara joan nintzenetik. Orain duela bi urte baino askoz hobeto nagoen arren, hau idazten bukatu bezain laster psikologoarekin txanda eskatuko dut. Ez nago gaizki, baina ez dut gaizki egon behar neure burua zaintzen hasteko.



Sara Berasaluce eta Yone Estivarizen *Ohiko lekuak* ikusgai klaustroan

Abuztuaren 31ra bitartean, Sara Berasaluce (Gasteiz, 1992) eta Yone Estivariz (Gasteiz, 1988) artista gazteen *Ohiko lekuak* erakusketa ikusgai dago Santa Maria elizako klaustroan; bertan, "espazioarekin eta bertan bizi diren izakiekin sortzen diren harreman intimoen bidez, bi begirada, bi leku eta bi memoria lotzen dituen argazki-proiektua" aurkituko du bisitariak.

Azken urteotan ohiko bihurtu da uda sasoiaren arte-erakusketa bat ikusgai izatea elizako klaustroan; baina, badu berezitasunik aurtengoak. Izan ere, Debako Udalak, Arte Eskola Bizirik taldearekin elkarlanean, lehiaketa bat antolatu zuen udaberriaren artista bisual berrien lana sustatzeko eta zabaltzeko helburuarekin; eta, lehiaketa horren lehenbiziko emaitza edo fruitua da, hain justu, *Ohiko lekuak* erakusketa.

Hori hala, lehiaketako irabazle Sara Berasaluce eta Yone Estivariz artisten lanekin atonduta ageri da klaustroa asteotan. Tamaina ezberdineko hamaika argazki biltzen ditu erakusketak; hormetan ez ezik, sabaitik zintzilik ere ageri dira horietako zenbait. Sortzaileen esanetan, "bizi izandakoaren eta ahaztutakoaren eremuan, oroitzapenak agertzen diren iruditeria bat eraikitzen da; autobiografiak lotzen dituen memoriaren bidea

marrazten duen mapa bat bailitza. Irudiak familia-espazioen ingurukoak dira, erabat desberdinak eta, hala ere, modu aztoragarri batean antzekoak. Begirada hautsia, biziaren osoko oroitzapenak dituenena".

Erakusketa "toki bera, leku desberdina" kontzeptua mahai-gaineratzera dator, edozeinen erretinan gordetako oroitzapenekin lotu ahalko litzatekeen ideia, alegia. "Leku horiek gure oroimenean daude, bai argazkiak aurkezteko moduan, bai nukleo beretik eraikitako imajinarioa sortzean"; hausnarketa horren ondoren sortu da, egileen arabera, "subkontzientean murgiltzeko errituak" partekatzen dituzten bi argazkilari gazte hauen arteko topaketa.

Uztaileko lehen asteburuan inauguratu zen erakusketa, bi sortzaile gasteiztarrek bertan zeudela. Besteren artean, Aritz Larrañaga Kultura zinegotzia eta Arte Eskola Bizirik taldeko zenbait kide –Ana Zabaleta eta Baroja Collet, kasu– ere izan ziren ekitaldian, eta haien eskutik jaso zuten artistek Willy Berasaluzek egindako oroigarri bana (lehiaketan nagusitu izanagatik).

Euren lana jendaurrean aurkezteko aukera dela eta, poztarren agertu ziren Berasaluce eta Estivariz ekitaldian. Saria jaso ondoren, erakusketan bildutako lanen xehetasunez eta euren obraren esanahiaz jardun ziren, besteak beste, inauguraziora bertaratutako herritarrekin.

Ohiko lekuak abuztuaren 31ra arte egongo da ikusgai. Eliza egunero egoten da zabalik 10:00etatik 13:00etara, eta erakusketa zabalik dagoen bitartean arratsaldez ere irekiko dute udaran: asteartetik larunbatera 17:00etatik 19:00etara bitartean, eta igandean 17:00etatik 20:00etara.



Ehundik gora ume bildu ziren Trakamatraka ikuskizunean



Umeentzako aisialdi eta kultur eskaintza aberastu asmoz, uztailearen 8an Trakamatraka musika-emanaldia izan zen zumardiko kiosko parean. Gure Giro programazioaren baitan egin zen saioa, Zuhatza Euskara Elkartearen ekimenez eta Kolore Anitz Aisialdi Taldearekin elkarlanean. Kolorez Blai euskal udalekuetako haurrek ez ezik, beste hamarnaka haurrek ere parte hartu zuten emanaldian.

Musikaren munduan modu erakargarrian barnertzeko proposamena da Trakamatrakarena eta, aldi berean, birziklatze-kontzientzia lantzen du. Hori hala, emanaldi didaktikoarekin eman zitzaion hasiera saioari; bertan, elementu ezberdinak baliatuta, hainbat musika tresna egiteko jarraibideak eman zizkieten haurrei. Tailerra egin zuten gero, eta ikasitakoak praktikara eramateko aukera izan zuten.

Mintzalagun programan jardun dutenek elkarrekin agurtu dute ikasturtea

Zuhatza Euskara Elkarteak dinamizatutako mintzalagun taldeek uztailearen 5ean eman zioten amaiera 2021-2022 ikasturteari. Hilabeteotan egindako lana biribiltzeko, talde ezberdinetan jardun diren zenbait kide Lorea tabernan bildu ziren, iluntze partean, elkar ezagutu eta guztiek batera mokadu bat jan eta tarte atsegin bat pasatzeko. Bide batez, ikasturteak emandakoaren inguruko balorazioa ere egin zuten.

Iazko urrian hasi eta ekainera bitartean, astero-astero hitzorduak egin dituzte Zuhatzako mintzalagunek (lau talde-tan banatuta, bakoitza bere dinamika eta ordutegiarekin). Urtero bezala, uda partean atsedean hartuko dute, eta datorren




ikasturtean elkartuko dira berriz ere egitasmoaren edizio berriari ekiteko.

Mintzalagun egitasmoa posible egiten duten parte-hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie Zuhatzak. Bide batez, datorren ikasturtera begira, herritarrei animatzeko deia egin diete dinamizatzaileek. Urrian zabalduko da izen-ematea.

Irailaren 6an batzar irekia gingo du Zuhatzak, Euskal Jaia hizpide hartuta

Datorren irailaren 24an, larunbata, ospatuko da aurtengo Euskal Jaia. Azken bi urteotan ez bezala, badirudi hitzordua ohiko moldera itzuliko dela oraingoan eta, hortaz, irailaren hasieran helduko zaie prestaketa lanei.

Beste urte batzuetako dinamikari eutsita, Zuhatza elkarteak bazkari herri-koia antolatzeko asmoa du, Jai Batzordeak prestatuko duen egitarauari bere ekarpena egin nahian. Bazkariaren nondik norakoak (formatua, eredu...) zehaztu, boluntarioen taldea osatu, eta lanen banaketa egiteko asmoz, bilera irekia deitu du irailaren 6rako, asteartea, 19:00etan, Kultur Elkartearen.



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3^oesk, Zarautz



KOLOREZ BLAI UDALEKUAK

Zuhertza Muz deba euskara
elkartea 2022



"Kolore artean mugituz, eskuak gora altxatuz, herri guztiari erakutsiz, euskaraz egiten dugula hitz, denok dantzatzuz, elkar maitatzuz, koloreak batuz, Kolore Anitz, Kolore Anitz, gora Kolore Anitz!"



UDALEKUETAKO
ARGAZKI ETA BIDEOAK

f Kolore Anitz / @koloreanitz

Irene Sarrionandia kirolaria

“Bakoitzak badaki zer duen atsegin, zerk betetzen duen; ez genieke beldurrik izan beharko jarduera berriei”

73 urte ditu Irene Sarrionandia Unzuetak eta, Deban bizi den arren, Zornotzan sortu zen. 40 urte daramatza mendian saltaka, eta mendi-lasterketa nagusien hainbat ediziotan aritu izan da. Hain justu, orain gutxi Irene Sarrionandia izena jarri diote Camille Extreme mendi-lasterketako emakumezkoen lehenengo postuaren sariari, bere omenez. Baina sariak jasotzea baino mendian irteerak egitea du atsegin: berdin oinez edo saltaka; berdin mendi handi nahiz txikitetan; berdin familian, taldean edo bakarka; berdin negu zein udan. Geldi gutxi egoten den emakumea izan arren, egin digu gurekin *Berriketan* aritzeko tartea.



Camille Extreme mendi-lasterketako emakumezkoen lehenengo postuaren sariak Irene Sarrionandia izena izango du. Nola hartu zenuen berria?

Ezusteko galanta hartu nuen. Sekula burutik pasatuko ez zitzaidana! Ez zaizkit horrelako paperak atsegin. Nik nahiago izango nuen lore-sorta bat oparitu balidate, adibidez.

Duela 40 urte hasi zinen mendian korrika. Nolatan hasi zinen, bada?

Errepidean, kotxe tartean, zoru gogorra zapaltzen pixka bat aspertuta... Andutzera begiratu eta... “zergatik ez?” galdetu neure buruari eta ekin nion modalitate berriari. Berez-berez atera zen, ahaleginik egin gabe.

Garai hartan eta orain agian desberdin biziko duzu mendia...

Ez, ez. Orduan gustuko nuena orain ere badut. Zailtasunaren, luzeraren, edo terrenoaren aldetik denak jarraitzen du antzera. Denbora pixka bat gehiago eman eta kitto! Urteak pasatu ahala gero eta ezagutza gehiago dut mendiei buruz, hori da aldea.

Zure ibilbidea ikusita badirudi bi

larga gutxienez gainditu dituzula: bata generoarena; adinarena bestea...

Ez dira gainditzeko hain zailak izan. Generoarenak lan pixka bat eman zidan, mendian emakumea bakarrik ibiltzen ikustea ez zelako batere arrunta. Lehenengo irteera txikitxoak, gero lotsa galtzen zoaz eta, azkenik, mugarik gabe mugitzen ikasten duzu.

Adinarenak ez dit lanik eman, berez, konturatu eta abisatu gabe, etorri delako.

“Indarra ematen dit mendian saltaka ibiltzeak; bizipoza, sakon arnastea, eta naturarekin bat naizela sentitzea”

Mikel Peña Sarrionandiak egindako Aurrera zuri buruzko dokumentalean, pasatako minbizia aipatu zenuen...

Oso arin pasa nuen. Dena ondo joan zen eta laster bizimodu normala ari nin-

tzen egiten. Urte horretan ere egin nituen lasterketarik kuttunenak!

Zegama-Aizkorri, Camille Extreme, Gorbeia Suzien... edizio mordotan hartu duzu parte. Bat aukeratzekotan?

Aukeratzea zaila egiten zait. Batzuk gogoko ditut parajearengatik, beste batzuk ematen dizuten hurbiltasun eta konfiantzagatik, edo mendi nagusiaren altueragatik...

Behin Baigorri 67 km-ko lasterketa bat egin nuen benetan oroitzapen onak utzi zizkidana. Sara Korrika ere bai. Canfrancekoa, Tenakoa, Aizkorrikoa... eta zer esanik ez, Camille Extreme!

Eta entrenamenduak egiteko ba al duzu inguruan leku kuttunik?

Etxe inguruan dauzkagun lekuen artean eguraldiaren arabera egiten dut aukera; euri asko egin badu lokatz gutxien dagoena, bero badago itzala duena... eta pixka bat etxetik aldentuz gero, Arantzazu edo Larraitz inguruak ere asko gustatzen zaizkit. Noizbehinka, Pirinioetara joatean, are eta gusturago aritzen naiz oraindik!

Igon Mancisidorrek Berriketan-i

emandako elkarrizketan aipatzen zuen burua, motibazioa, esperientzia eta arazoari aurre egiteko gaitasuna lasterketak bukatzeko ekuazioan % 60 zela...

Ez du arrazoi faltarik! Lehenengo puntua izango litzateke buruarena: zuk nahi izan behar duzu. Orduan, buruan hori garbi edukita, behar diren urratsak emango dituzu...

Elikadura asko zaintzen duzu, ezta?

Saiatzen naiz behintzat. Azkenaldi honetan aldaketa nabarmena egin dut: zerealak eta lekaleak utzi eta proteina eta koipeak gehitu. Ikusiko dugu, ea nabaritzen den...

Mendira bakarrik joateak beldurra ematen dio askori. Bizitza erdia baino gehiago daramazu zuk horretan... Izan al duzu esperientzia gogorrik? Ala pasadizorik?

Noizbehinka sustoren bat eman izan dit txori edo beste animalia bategatik, berak ere sustoa hartu eta ihesari eman diolako... Behin, Covadongatik lakuetarako mendi-bidean mastin handi bat irten zitzaidan eta pixka bat urduritu nintzen, baina ibilbidea pixka bat inguratu eta ez zen ezertxo ere gertatu. Beste behin, Arbildik behera txakur batek hortzaka egin zidan... beste munduko gauzarik ez!

Andorran, berriz, hartz bat ikusi nuen ezpel artean ezkutatzen. Ni Coma de Varillesera igotzen nindoan, ertzerara irteteko gutxi falta zitzaidan, eta goitik behera erabat izututa gizonetako bat zetorren tximistaren pare "hartz, har-

tza!" oihuka, eskuaz norabide bat seinatuz. Telefonoa atera (argazkirako agian) eta ertza beste aldera pasa nintzen, eta han non ikusten dudana hartza ezkutatzen!

Beldur gehiago eman beharko lidake errepideak! Duela hiru urte auto batek harrapatu ninduen bizikletan nindoala eta pelbisa apurtu! Baina ez dit beldurrik ematen, ez naizelako ezertaz gogoratzen...

Beste askok sufrimenduari lotzen du mendia...

Oreka aurkitu beharra dago, nire ustez. Aldapan gora eta lehian bazoaz sufritu beharra ukalezina dela esango nuke. Ikusten baduzu merezi izan duela lortu duzu oreka hori. Gero, beherantz zoazenean, beste sentipen batzuk nabaritzen dituzu, erlaxatzen zara... eta bukatzerakoan poza da nagusi. Lortu izanaren bizipoza!

Zeure gorputza entzuteko ahalmena ere ondotoxoa garatua izango duzu, ziurrenik, honezkero...

Tira, baietz esan beharko. Errazenera jotzeko ahaleginak egiten dizkit askotan, eta buruak orduan bere estrategiak erabiltzeko dituz planarekin aurrera jarraitzeko.

Zer ematen dizula esango zenuke mendian saltaka ibiltzeak?

Ariketa fisikoa egiteak ematen duen indarra, burua arindu eta bizipoza nabaritzea, sakon arnastu eta norbera ere naturarekin bat dela sentitzea... baita nekea, eskuetako hotza eta horrelakoak ere, nola ez!

Mendian lasterka hasi aurretik ere mendizale zintugun. Orduetik mendizale-tasuna aldatu egin dela esango zenuke?

Ez gehiegi, baina bai. Alde batetik, orain askoz errazago mugitzen gara; hegazkina hartu eta bidaiak luzeak egin ditzakegu, autoz ere di-da batean Pirinioetan koka gaitzke...

Beste aldetik, mendizaleak lehen gizonetakoak ziren gehienak, ondoren neska gazteak gehituz zihoazela ikusi nuen, eta, orain, gero eta berdintsuago gaudela esango nuke genero kontuan.

Eta hirugarren aldaketa bat ere aipatuko nuke: modalitate gehiago egiten dira, eta zailtasun maila eta arriskuak ere handitu egin dira.


Jubilatuta egon arren, jakin badakigu aspertzeko tarte handirik ez duzula izaten; ortuan ere aritzen zara, adibidez...

Bai, eta horrek ere bere denbora eramaten du. Etxeko lanak bezala da: ez dira behin ere bukatzen. Halako batean nahikoa dela esan eta utzi egin behar duzu.

Gainera, ortua oso ondo datorkit naturan gehiago egoteko, oinutsik ibiltzeko, eta, noski, barazki batzuk ekoizteko.

Ondo azaldu duzu garaiak nola aldatu diren. Ane alabarekin ibiltzen zara, besteak beste, tarteka korrika. Zerbait esango al zenioke honetan hasiberri den emakumeari?

Gauza askorik ez. Bakoitzak badaki zer duen atsegin, zerk betetzen duen... Zer edo zer aipatzekotan, esango nioke ez edukitzeko beldurrik jarduera berriei, eta gero erabaki!



300dik gora lagun datoz Reustik abuztuaren 13ko topaketara

Azken urteotako etenaldia gaindituta, aurten jarraipena izango du Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako kulturak batzeko helburuz sortutako dinamikak. Erronka horrekin jaio zen Deba-Reus komisioa 2016an, eta harrezkero askotariko ekimenak antolatu dituzte Reus eta Debaren arteko lotura sendotu eta kultur elkartrukea sustatu nahian. Hitzordu berria abuztuaren 13rako deituta dago gurean; bueltan dator Deba-Reus topaketa.

Antolatzaileen esanetan, 300dik gora reustar izango dira bertan eta egitaraua prest dago jadanik –partaideetako birekin aritu gara *Berriketan*–.

Oraindik ere lan handia dago egiteko, dena den, eta “egitaraua aurrera atera eta guztiok gozatu ahal izateko herri guztiaren laguntza” beharko dutela gogorazi dute komisioko kideek. Topaketaren inguruko xehetasunak emateko agerraldia egin zuten uztailearen 16an.

“Gremioak eta historiako uneak irudikatzen dituzten dantzak egingo ditugu Deban; gure kultura-ondarearen erakusgarri txiki bat”



Albert Salas

Reuseko Danses Tradicionals koordinakundea

Nortzuk osatzen duzue koordinakundea? Zertan oinarritzen da zuen jarduna?

Irabazi asmorik gabeko erakundea da gurea, eta Reusen dantza tradizionalen ikerketa, berreskurapena eta kontserbazioa sustatzen ditu. 1996an sortu zen, aurreko mendeetan hirian interpretatutako dantzak berreskuratzearen aldeko apustua egin zutenen borondateari esker.

1996an finkatu ziren estatutuak, baina berreskuratutako lehen elementua 1982koa izan zen, *Ball de Gitanes*. Harrezkero, beste dantza batzuk berreskuratu dira: *Dansa de Mossèn Joan de Vic* (1983) eta *Ball de Prims* (1992); *Ball de Cercolets* (1996), *Ball de Galeres* (2003), eta *Ball de Pastorets* (2007).

Berreskuratze-lana neketsua izan da; ez dokumentatzea bera (Josep Bargalló folkloristari esker dantzen xehetasun asko iritsi zaizkigu), baizik eta tradizio horiek gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak biltzea.

Hala ere, harro gaude koordinakundea osatzen duten dantzekin. Pixkanaka, lekua egin dute Reuseko jaialdi eta herri-irudimenean, lagun askoren lanari esker.

Ba al dago antzekotasunik zuen dantzen eta Euskal Herrikoen artean? Zertan bereizten dira?

Zaila da konparazio orokorra egitea, baina ziur antzekotasunak aurki daitezkeela: urte osoan dantzaten direnak eta data berezietan bakarrik egiten direnak daude, adibidez. Batzuk lurralde osora hedatuta egon daitezke, eta beste zenbait herri jakin batean baino ez dira dantzatzeko; beste batzuk, aldiz, pertsona gutxi dantzatzeko dituzte, eta badira beste hainbat irekiak direnak, hau da, nahi duen orok dantza ditzakeenak.

Eremu jakin batekoak izan arren, dantza batzuk azkenean jendarteratu eta zabaldu egiten dira. Horren adibide garbia da Reusen ere euskal dantzak dantzatzeko direla. Arrakasta berezia dute *Zazpi jauzi* eta *Esku Dantzak*!

Osagarri antzekoak ere badira, ezta?

Bai, ezaugarri komunak ageri dira hainbat osagarritan: zintetan, uztaietan, makiletan edo ezpatetan, eta gainera antzera erabiltzen dira.

Bestalde, badira elementu ezberdinak, koreografikoak, adibidez. Euskal dantzetan une batzuetan dantzari bat edo gehiago nabarmentzen dira, eta pausoak egiteko trebetasuna ikus daiteke; katalanetan, berriz, dantzarien artean sortzen diren irudiak nabarmentzen dira nagusiki.

Zer dakarzue Debako emanaldira?

Bada, ilusioz beterik gatzoz *Ball de Gitanes* eta *Ball de Galeres*-ekin!

Gitanes, “ijitoak”, katalanez hitz egiten den lurraldeetako dantza arruntenetako bat da. Loratutako makila bati eusten dion deabrua da, eta zuhaitz bat simulatzen du

enborrean zintak txirikordatzen dituzten dantzariekin. Herriko plaza nagusian zuhaitz handi bat landatu, apaindu eta inguruan dantzatzea oinarri zuen festa zaharretik dator. Zinta horiekin Kataluniako bandera sortzen duen bakkarra da Reusekoa. Eta ilusio berezia egiten digu, aurten dantza berreskuratu zeneko 40. urtemuga ospatzen baita!

Galeres oso dantza berezia da eta, aldi berean, ohikoa. Berezia da, ez dagoelako halako besterik, Lepantoko itsasontzi-bataila irudikatzen baitu; eta oso arrunta da, ordea, mairu eta kristauen arteko gerra amaigabea taularatzen duelako.

Dantza antolatuek eta koreografia-tuak ikusiko dituzue Deban, gremioak eta historiako uneak irudikatzen dituztenak, gure kultura-ondarearen erakusgarri txiki bat. Ondo pasatzea espero dugu!



“Espero dugu jendea gure dorreekin hunkitzea, gu zuen kulturarekin eta jaietako elementuekin hunkitzen garen bezala”



Xenia Galceran eta Aina Martin
Xiquets de Reus

Nola aurkeztuko zenukete zuen burua?

Reuseko “colla castellera” deritzona gara. 1981ean ekin genion gure jarduerari, inguruko herrietako (Valls, Tarragona...) colla edo taldeek egiten dituzten castell-ak ikusita.

Castell-ak egiteko ez du axola duzun generoa, adina, prestakuntza...; beraz, asko eta oso desberdinak gara.

Castell-a giza eraikuntzak altxatzean datza, elkarren gainetik igoz, egiturarik altuenak lortu arte. Hainbat modutakoak izan daitezke, pisu bakoitzean igotzen den jende kopuruaren, eta iristen den pisu kopuruaren arabera. Castell oro hiru zatiz dago osatuta: *Pinya* (oinarria), egitura (dorreaken ageriko zatia) eta *pom de dalt-a* (egituraren goialdea). Goraino igotzen den haur taldeari *la canalla* deritzo.

Gure jarduera da astero bizpahiru egunetan entseatzera eta asteburuetan emanaldiak egitea.

Lortu ditugun *castell* garrantzitsuen artean, bederatzi pisukoak nabarmendu genitzake, adibidez (hiru pertsonako bederatzi pisukoak, alegia).

Nola eragin dizue pandemiak zuen egunerokoa?

Gure jarduerak jende asko biltzen du eta harremana eskatzen du. Pandemiaren ondorioz, erabat gelditu behar izan genuen gure jarduera.

Jarduera fisikoak ez ezik, sozialak eta kulturalak ere elkartzen gaitu. Gure artean lagun asko daude, eta *castell*-ek lotzen gaituzte. Beraz, hori alboratzea eta elkar ikusteari lagatzea oso zaila izan zen.

Bi urteren ondoren, normaltasunera itzuli ziren azken jardueretako bat izan zen geurea, osasun-araudiak zirela eta. Gainera, pandemiak pertsonalki bakoitzarengan izan duen eraginaren ondorioz, colla apur bat kaltetu da: pertsona batzuek itzultzeko zalantza zuten, eta kiderik txikiak asko hazi ziren.

Normaltasunera 2021eko irailean itzuli ginen, gure denboraldiaren amaieran (martxotik urrira arte irauten du) eta bueltan, aurten, apurka-apurka, egiten genituen giza dorreak berreskuratzen ari gara, nahiz eta aurretik lan handia egin.

Debara bigarren bisita duzue. Zer oroitzapen dituzue? Eta zer berritasun izango dira aurtengo emanaldian?

Debara egin genuen lehen bisitan oso ondo pasatu genuen, herriko jendearekin kultura partekatuz gozatu genuen, eta

hain gustuko dugun hori irakasteko aukera izan genuen: *castell*-ak.

Herriko plazan aritu ginen, Katalunian ohi den bezala, eta hainbat *castell* eta *pilar* (zutabe) egin genituen, abuztuan egingo ditugunak bezalakoak. *Colla castellera* batentzat, etxetik hain urrun *castell*-ak egin ahal izateak asko esan nahi du: ahalegina eta konpromisoa, jende askoren inplikazioa behar delako. Debako txikienei zuzendutako jarduera bat ere egin genuen, egun batez gure giza dorreak nolakoak diren jakiteko gogoia baitzuten.

Aurten espero dugu jendea berriz hunkitzea gure eraikuntzekin, eta gu hunkitzea zuen kulturarekin eta jaietako elementuekin, eta duela bost urte hasi genuen harreman berezi horri eustea.

Eskerrik asko!, aurten bereziki zuen festez, pintxoez eta jende onaz gozatu ahal izatea espero dugu!



Abuztuak 13 | Deba-Reus Topaketako egitaraua

- 11:00. **Ongi etorri ekitaldia** Foruen plazan.
- 13:30. **Castell erakustaldia** Xiquets de Reus-en eskutik, Foruen plazan.
- 15:00. **Bazkari herrikoia** Aldats pilotalekuan. **Tiketak salgai egongo dira aurrez, sare sozialetatik egingo da deialdia.*
- 18:30. **Reuseko elementu kulturalen erakustaldia** herriko kaleetan zehar: dantzak (*Ball de Gitanes* eta *Galeres*) eta erraldoien kalejira (*Bou de Reus*, *Drac*, eta *Carrasclat*).
- 21:30. **Su-ikuskizuna:** *Diables*, *Drac* eta *Cabra*, Foruen plazan.
- 23:00. **Kontzertuak**, txosnagunean:
Debrass Band, Skabidean eta Mandrilia selectors.



Ozio-Bide elkartea, 75 urte gure artean



Iñaki Lete, Paco Lazcano, Pablo Sorozabal, Joaquin Aperribay, Jesus M^a Larrañaga eta Jose Ignacio Urbieta (1972).

Ozio-Bide elkarteak eta hark urtez urte aurrera atera duen festetako danborradak 75 urte bete dituzte (lehenak aurreten eta bigarrenak iaz), eta hainbat ekimen antolatu ditu elkarteak urteurren horiek ospatzeko. Ekimen horiek iazko abuztuan hastekoak ziren arren, COVID-19aren ondorioz atzeratu egin behar izan dituzte, eta ekainaren 25ean eman zaie hasiera ofizialki, *Ozio-Bide 75 urte 1947-2022* liburuaren aurkezpenarekin. Iaz zendu zen Karmelo Urdangarin eta Txema Vitoriak idatzitako liburu hori berori erabili dugu batez ere esku artean elkartearen ibilbidearen errepaso moduko bat egiteko.

Ozio-Bide 75 urte 1947-2022 liburuaren argitalpenaz gain, elkartearen eta danborradaren urtemugako ospakizuna honako ekimenek osatuko dute: uztailaren 23an bazkari berezia egin da elkartearen hainbat gonbidaturekin (agintariak, Debako elkarte gastronomikoak,...); oroigarri modura lepo-zapi bat aterako da; hilaren 14ko danbor-joleen afarira Musika Banda gonbidatuko da; elkartearen armarridun pina sortuko da bazkideentzat; eta, azkenik, danborradan oroitzapenezko hainbat ekitaldi egingo dira eta, amaieran, Amaiak Bat futbol taldea omenduko dute, hark ere 75 urte bete dituelako.

Ozio-Bide elkartearen sorrera

Armagintzak bailarara ekarritako ekonomi oparotasunaren giroan sortu zen Ozio-Bide, berrogeiko hamarkadan. Beste elkarte askorekin gertatu zen bezala, Debako San Roke jaietan irekitzen diren “bodega” tradizional bateko lagun talde batek herri-elkarte bat martxan jartzearabaki zuen. Jose Ignacio Urbieta buru zuen lagun taldeak Donostiako Gaztelu-Bide herri-elkartearen estatutuak kopiatu eta 1947an onartu zituzten hemen, Urbieta bera lehendakari zutela.

Haren hitzetan, “adiskidetasunak eta gastronomia xumeak ematen dituen plazerez giro onean gozatzeko elkartea” izango zen. “Ideia ez da berria, tankera honetako elkarteak badaude jadanik gure geografiako hainbat lekutan. Dena den, hainbat oztopo ofizial agertzen dira -Espainian garai politiko oso zailak bizi ziren-, baina herriko alkatearen babesarekin (orduan, Fernando del Valle Lersundi) baimena lortzen da proiektuarentzat”.

Jaietako “bodega” tradizional bateko lagun talde baten ekimenez sortu zen herri elkartea, 1947an

29 bazkide fundatzaile

Elkartearen egoitzan dagoen plakan 29 lagun ageri dira fundatzaile gisa. 1947a zen, zortzi urte Gerra Zibila amaitu zela, eta bazkide fundatzaileen artean ideia politiko oso desberdinak zituzten jendea ageri da. Hala, Ozio-Bide sortzeko

gizarte-ekimenak Debako herritarrak adiskidetzen lagundu zuen irudipena dute kideek. Datu bitxi gisa aipatzen dute aurreneko lokalean hainbat urtez kartel bat egon zela politikaz eta erlijioaz hitz egitea debekatzen zuena.

Urte askoan, bazkidegai izateko, beharrezko izaten zen gizonezko izatea, idatziz eskatzea, iragarki-taulan 15 eguneko argitaratzea, bi urte baino gehiagoko an-tzinatasuna zuten bi bazkide osok aurkeztua izatea, eta diru kopuru bat ordaintzea (100 pezeta hasieran). Urteek aurrera egin ahala, Debako egoiliarak lehenetsi ziren.

Ohorezko bazkideak ere izendatu ditu elkarteak bere historian: Pablo Sorozabal, Emilio Lopez Vidriero, Carlos Copel eta Jose Maria Rementeria.

Urdangarin eta Vitoriaren liburuan aipatzen den bezala, “pentsaera desberdinak agertu izan dira zenbait gairen inguruan: kuoten zenbatekoa, emakumeen sarrera elkartearen edo elkarteak bazkideen eskura jarrita dituen produktuen prezioen eguneratzea. Baina, oro har, esan daiteke jarrera positiboa egon dela”.

Ozio-Bide bereizten duen beste ezaguri bat, euren esanetan, “elkartearen jarduera sozial handia” da, barrura zein



Isidro Vitoria, Paco Lazcano eta Faico Ullacia (1962).



Pedro Galdona, Roman Galarra, Jose Velasco, Paco Lazcano eta Jose Ignacio Urbietia (1983).

kanpora begira, bai iraganean bai gaur egun ere. Herriko hainbat elkarterekin elkarlanean aritu izan dira eta dabilta oraindik ere, haiei ekonomikoki lagunduz batetik, beren ohiko jarduerak aurrera eraman ditzaten, eta haiekin jarduera zehatzak antolatuz, bestetik.

Egun ere elkarteko bazkidegai izateko

baldintzak antzekoak dira eta Debako egoiliarak lehenesten dira. Guztira 130 lagunek osatzen dute egun Ozio-Bide. Bada alde nabarmen bat, ordea, urte luze-etan ez bezala, bazkideen artean bi emakumezko ere badira eta; iaz onartu zuten emakumeak elkartean gizonezkoak dituen eskubide guztiak izatea.

Honakoek osatzen dute gaur egun zuzendaritza: Pablo Fernandez lehendakariak, Jose Luis Sudupe lehendakariordeak, Isidor Lamariano idazkariak, Julen Salgado diruzainak, eta Javier Gaztañaga, Aitor Narbaiza, Jose M^a Cendoya, Joseba Aguirre, Oscar Urdangarin eta Luis Ramon batzordekideek.

Danborrada, ekimen izarra

Aurrez ere bada herrian danborrada aipatzen duen idatzirik, baina Ozio-Bideren lehenengoa 1946an izan zen. Elkartearen sortzen ari zen, eta gerora Ozio-Bideren bazkide fundatzaile izango zen lagun talde batek jarri zuen martxan, Donostiako Casa Angelitan alokatutako traje eta danborrekin. 1947an, Ozio-Bide martxan zela, 11 bazkidek danborrada finantzatu zuten, bakoitzak 1.400 pezeta jarrita; laster, materiala elkarteari laga zioten.

Lehen Danbor Nagusia Isidro Vitoria (Mami) izan zen 1946-1963 urteetan. 1964tik 2000 urtera haren seme Txema Vitoriari hartu zuen kargua eta, azkenik, 2000tik gaur egunera arte, Manolo Pascual izan da Danbor Nagusi.

Parte hartzeari begira, emakumeek aurretik ere urteak zermatzaten arren pandero-jole, 2012an erabaki zuen elkartek danborradan emakumeei danbor-jole moduan sartzen lagatzea.

Errepertorioari dagokionez, hasieran Raimundo Sarriegiren konposizioak interpretatzen ziren: *Tatiago*, *Iriarena*, *Diana* eta, Foruen plazatik irteteko, *Anteron txamarrotia*. Beranduago *Deba* izeneko kalejira gehitu zen, Jaime Cardenasek (uda Deban igarotzen zuen pediatra) konposatua.

Aipagarriak dira Pablo Sorozabalek konposatutakoak ere: *Debako Martxa* edo *Hirugarren kalez kale*, eta *Ozio-Bide polka*. 1955eko uda Deban pasa zuen musikariak, Vidriero ohiko udatiar eta medikua lagun zuelako; Ozio-Biden, Jose Ignacio Urbietak "konpas batzuk falta zaizkigu danborradarako" botata eskuratu zien 1956an Sorozabalek *Debako Martxa*.

Polka ere Urbietak egindako proposamenetik etorri omen zen: "Begira don Pablo, hurrengo pieza baterako aurreneko konpasak emango dizkizut", esan eta hiru kolpe lehor eman zituen



Arg.: Joxerra Larrañaga

mahaian koilararekin. Polka hiru konpasekin hasten da, bada, danbor eta barrilez jotako hiru kolpe lehorrekin.

Jose Ignacio Ansorenaren piezek ere osatzen dute errepertorioa. Txema Vitoriari *Mami* bilduma eskaini zion: *Txitxarritok*, *Mami*, *Plaza Zaharra*, *San Roke* eta *Anguleroak*. Bestalde, Ansorenak Sorozabalen baimenarekin *Ozio-Bide polka* moldatu zuen txistuarekin jo ahal izateko. Eta, azken hamarkadan, *Amaiak-Bat-en himnoa* gehitu da; Fernando Urainek (Fefe) konposatua, danborrada amaitu ostean, plazatik irteteko jotzen da.

1997an danborradaren 50. urtemuga eta Sorozabalen jaiotza-aren mendeurrena bete ziren. Batetik, disko bat grabatu zuen danborradak Debako Musika Bandarekin; bestetik, Donostiako Musika Hamabostaldiaren 58. edizioak konpositorea omentzeko kontzertua antolatu zuen Debako plazan.

Kopraixak 2022

egitaraua egunez egun

Guztia prest dago Itziarren sei egunez luzatuko diren Kopraixei harrera egiteko. Apirilaz geroztik lanean dihardu Jai Batzordeak eta bertan parte hartzen duten eragile guztien elkarlanaren fruitu da aurtengo festetako egitaraua. Hemen duzue ikusgai abuztuaren 5etik 10era bitartean antolatutako ekimen sorta.



Abuztuak 5, ostirala

19:00: Bertso-pilota, finala.

Abuztuak 6, larunbata

10:30: Umeen pilota-partidak.

16:00: V. Itziar Trail mendi-lasterketa. Izen-ematea: www.kirolprobak.com

16:15: Umeen V. Itziar Trail lasterketa.

18:30: Joselontxo's txaranga eta buruhandiak.

19:00: Txupinazoa, Marixiren etorrera eta danborrada.

23:30: Erromeria plazan: AKERBELTZ.

Abuztuak 7, igandea

07:30: Leizarrango zezenak.

11:30: Meza nagusia.

12:00: Txakolin-dastaketa eta Jokin Eizmendi harri-jasotzailearen erakustaldia.

18:00: XVII. Bikoteen Arteko Dantza Suelto Txapelketa.

Ondoren: Errekortari gazteak eta Leizarrango zezenak.

23:00: Kontzertua elizan: OLATZ SALVADOR.

Abuztuak 8, astelehena *Bikoteen Eguna*

11:30: Meza.

11:30: Kalejira: Jan da Eran txaranga.

12:00: Sagardo-dastaketa eta bertsolariak: Alaia Martin eta Iñaki Apalategi.

12:30: Txan Magoa frontoi zaharrean.

14:30: Herri bazkaria.

18:00: Herri-kirolak, helduen arteko jolasak, aurrekua eta Leizarrango zezenak.

23:30: Erromeria plazan: LAIOTZ.

00:30: Playback txapelketa.

Abuztuak 9, asteartea *Umeen Eguna*

11:00: Umeen arteko jolasak.

13:00: Entzierroa. Leizarrango zezenak eta pottokak.

14:00: Umeen bazkaria Salegi jatetxean.

17:00: Indartsuak ikuskizuna, euskal dantzak, Leizarrango zezenak eta pottokak, eta buruhandiak.

19:30: Kantu-jira.

20:00: Bokadilo-jana tranpapean.

Ondoren: Zezensuzkoa.

22:00: Erromeria plazan: GAUARGI.

Abuztuak 10, asteazkena *Gazteen Eguna*

10:30: Ur-jolasak eta puzgarriak umeentzat.

11:30: Bizikleta lasterketa erreleboka.

Ondoren: Kuadrillen arteko jolasak eta zezenak plazan.

14:30: Paella txapelketa, frontoian.

17:30: Kalejira plazara.

18:00: Kuadrillen arteko jolasak, aurrekua eta Leizarrango zezenak.

23:30: Kontzertua: ANITA PARKER.

Ondoren: DJ BULL.

06:00: Zumba maratonia.

07:00: Peto jaitsiera eta gaupaseroen argazkia.

Umeen Eguna lehenbizikoz ospatu zeneko 70. urtemuga betetzen da aurten

1952. urtean ospatu zen lehen aldiz Umeen Eguna gurean. Ospakizun berezia izan zen, zalantzarik gabe, haurrentzako espreski antolatutako festei dagokienez ez baitzen aurrekaririk ezagutzen gurean; ez Euskal Herrian ez Espainian. "Estatu osoan haurrentzako soilik prestatutako lehenengo festa antolatu zuen lehen herria izateaz harro egon liteke Deba", aipatzen zuen Alex Turrillas historiazaleak 2019an idatzitako *El ángel de la guarda de Elvillar* artikuluan; bere blogean Anes Arrindari eskainitako sarrera batean, hain justu.

Izan ere, herriko katekesi taldearen laguntzarekin, Anes Arrindaren ekimenez sortu edo "asmatu" zen gaur ezagutzen dugun Umeen Eguna orain 70 urte.

1952az geroztik, Umeen Eguneako ospakizunek ez dute aldaketa handi edo nabarmenik izan gaur artean. Bai lehen

eta bai orain, hainbat elementu berdintsu mantendu dira programazioan, hala nola dantzak, zezenak, danborrada edota herri-kirolak. Eta ildo beretik dator aurtengo hitzordua ere, abuztuaren 15ean, astelehena, haurrei eskainitako egun osoko egitaraua izango baita Deban -egitarau osoa hurrengo orrialdeetan ikusgai-.

Eguna prestatzeko entseguie uztaillaren hasieran ekin zieten, baina antolatzaileek gogorarazi dutenez, "gogoia duten guztiak parte hartzeko garaiz dabilza oraindik ere". Umeen Eguneako egitaraua txukun prestatze aldera, entseguak egiten jarraituko dute ospakizuna hurbildu bitartean; uztaileko astearteetan izaten dira hitzorduak, Ifar kaleko eskolan, eta abuztuan astearte eta ostegunetan egingo dituzte, 19:00etan betiere.

Entseguetan eta ospakizunean parte



hartzeko gonbidapena herritar guztiei zuzendu nahi diete antolatzaileek eta, bide batez, antolakuntza-lanetan boluntario gehiagoren laguntza beharrezko dutela ere gaineratu dute. "70 urte hauetan bolondres ugariri esker lortu da Umeen Egunak bizirik jarraitzea. Beste horrenbeste urtez jarraitu ahal izateko, baina, erreleboa behar dugu", nabarmendu dute.

25 urteko ibilbidea egin du Txosna Batzordeak



Txosna Batzordeak, aurten 25 urte betetzen dituela eta, zenbait ekitaldi antolatu ditu; eta Katxalotek diseinutako kamiseta eta poltsak ere atera ditu urtemugaren logoarekin. Abuztuaren 6an, larunbata, izango da lehenengo ekitaldia, Txosna Batzordearen inguruko hitzaldia eta luntxa izango baitira Gaztetxean 11:00etan; urteurreneko ekitaldi nagusia, dena den, abuztuaren 13an, larunbata, izango da, gaueko kontzertuen bueltan.

Txosnagunea eta bere egitaraua aurrera aterako dira Debako Gazte Asanblada, Presoen Lagunak, Zezenketen aurkako taldea, Debasket, Deba-

Reus Komisia eta zenbait norbanakoren ekimenez. Hala ere, batzordekideek gogorarazi dutenez, oraindik jendea behar da txosnetako txandak betetzeko.

Berritasunik ere izango du aurtengoan txosnagunea: batetik, bi txosna izango dira hiru beharrean, baina horietako bat aurrekoa baino handiagoa izango da; bestetik, bokatak beharrean piztak izango dira iluntzean, eta lehen beste txosna bat zegoen lekuan afaltzeko mahai eta aulkiak jarriko dira orain.

Azkenik, Sare Feministak eraso sexisten aurkako protokoloa prestatu du, txosnagunea leku seguru izan dadin.

Uzuri
optika audio



RPS: 183/12

**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

San Roke jaiak 2022

egitaraua egunez egun



Aurten bai, badatoz San Roke jaiak. Azken bi urteotan ez bezala, abuztuaren 14tik 18ra bitartean festa giroan murgiltzeko aukera izango da Deban.

Laura Ruiz de Pabloren *Prom, prom, prom... aurten bai!* kartelak iragarriko ditu jaiak; lehiaketara aurkeztutako lanen artean, lau hautatu zituen epaimahaiak eta herritarrek boto bidez hautatu dute irabazlea.



Abuztuak 14, igandea *Festen hasiera*

18:00: San Roke festen hasiera. Kanpai errepika eta udaletxeko balkoitik txupinazoa botako da San Roke festei hasiera emateko. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin zapi gorria jantziko zaio San Rokeri.

Jarraian: Kalejira, Musika Banda, txistulariekin eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

19:30: Udalbatza elizara abiatuko da Alkate Soinua entzunez. Gure Kai dantza taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatuko ditu. Ondoren, **Hilarion Eslavaren salbea** abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

22:30: Danborrada Ozio-Bide elkartearen eskutik.

01:00: Erromeria URRATS taldearekin zumardiko karpan.

Abuztuak 15, astelehena *Umeen Eguna*

09:00: Diana Lizarrako Gaiteroekin.

09:30: Umeentzako entzierroa.

10:00: Artisau azoka pasealeku estalian eta Gudarien plazan.

11:00: Kalejira Luzaro eskolatik. San Roke txikiari dantza Plaza Zaharrean.

11:30: Kalejira musika eskolatik. Erraldoi txikien dantza Simon Berasaluze plazan.

12:00: Plazako jaialdia: danborrada, herri-kirolak, dantzak, zezenak eta errekortariak.

13:30: 2019ko abuztuaren 1etik 2022ko uztailearen 31ra bitartean jaiotako **umeei zapi gorria** jarriko die alkateak udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

16:00-20:00: Adin ezberdinetako umeentzako jolasak Simon Berasaluze plazan. **Oharra: Ur-puzgarrietarako bainujantzia ekartzea gomendatzen da.*

19:00: Erromeria MUGI PANDEROA taldearekin Plaza Zaharrean.

23:00: Kontzertuak zumardiko karpan: SAIA GOAIT, LUKIEK eta DJ FESTA.

Abuztuak 16, asteartea *San Roke Eguna*

07:00: Diana Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak.

09:30: Herritarren agurra San Rokeren irudiaren aurrean, Plaza Zaharrean: Gure Kai taldekoen **Ezpata Dantza**. Jarraian, herritarrek San Roke ermitara igoko dira prozesioan eta **Meza Nagusia** izango da.

12:30: Aureskua Foruen Plazan Gure Kai dantza taldearen eskutik.

Ondoren: Enbolatuak.

18:00: Umeentzako egur-jolasak Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa Tamameseko (Salamanca) zezenekin. Toreatzaileak: Miguel Porta eta Cristiano Ricardo. Sobresalientea: Daniel Sanchez.

Ondoren: Enbolatuak.


Jarraian: Kalejira, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

20:00: Bertso saioa txosna gunean: Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia eta Ane Zuazubiskar.

23:30: Su artifizialak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).

00:00: Kontzertua zumardiko karpan: GOXUA N' SALSA.





Abuztuak 17, asteazkena *Marinel Eguna*

- 06:30: Kardantxuloak kantuan Plaza Zaharretik.
- 10:30: Jorrai Dantza herriko kaleetan, Gure Kai dantza taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.
- 11:00: TXANBEZPEL taldea herriko kaleetan zehar.
- 12:00: BAHEZ taldea herriko kaleetan zehar.
- 15:00: Bazkari herrikoia Aldats pilotalekuan.
- 17:30: Kalejira Lizarrako gaiteroekin.
- 18:00: Entzierroa. Ondoren, gazte kuadrillen jokoak plazan.
- 20:30: Erromeria TRIKIZIO taldearekin zumardiko karpan.
- 00:00: Larrain Dantza, Plaza Zaharrean.
- 00:30: Kontzertuak zumardiko karpan: ZOPILOTES TXIRRIAOS eta KALEKO URDANGAK.

Abuztuak 18, osteguna

- 07:00: Diana Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.
- 08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak.
- 11:30: Udalak eskainita, Arbil jubilatuen elkartearen, hamaiketako adinekoentzat.
- 12:00: Herri-kirolak Simon Berasaluze plazan. Ioritz Gisasola eta Aratz Mugerza (harri-jasotzea, aizkora, txingak eta korrika).
- 12:30: Enbolatuak plazan.
- 13:00: Herri-kirolak Plaza Zaharrean. Irati Astondoa eta Ugaitz Mugerza / Karmele Gisasola eta Julen Alberdi (aizkora, trontza, korrika eta txingak). Jon Lapazaran (lasto-altxatzea).
- 13:30: Herri-kirolak Arakistain plazan. Udane Ostolaza eta Aroa Sanchez (harri-jasotzea).
- 18:00: Umeentzako antzerkia Simon Berasaluze plazan, *La familia Toronbole*.
- 18:00: Zezenketa Tamameseko (Salamanca) zezenekin. Toreatzailak: Pedro Andres eta Nabil El Moro. Sobresalientea: Daniel Sanchez.
- Ondoren: Erraldoi eta buruhandien agurra Plaza Zaharrean, Musika Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.
- 23:30: Danborrada Ozio-Bide elkartearen eskutik Plaza Zaharrean.
- 00:00: Jaien amaiera: zapi gorria kenduko zaio San Rokeri.



UZTAILAK 27, ASTEAZKENA

-22:00. **Gure Giro.** Asteazken Akustikoak: Itsaso eta Martina bikotea, Gaztetxean.

UZTAILAK 28, OSTEGUNA

-22:00. **Gure Giro.** Udako Zinema: *Delicioso*, Kultur Elkarteko plazan.

UZTAILAK 29, OSTIRALA

-22:00. **Iturri Ondoan.** *Album* antzerkia (Formol Laborategia), Plaza Zaharrean.

UZTAILAK 30, LARUNBATA

-10:00. **Gure Giro.** *Atalayas balleneras* bisita gidatua, Itxaspeko kanpinetik abiatuta.
 -11:00. **Ur (h)ondoa garden.** Bisita gidatua, irteera Ondargain paretik (Tel. 943 19 24 52).
 -20:00. **Nazioarteko Flysch Organo Kontzertua**, Jon Laukvik, Santa Maria elizan.
 -23:00. **Musika Bandaren dantzaldia**, plazan.

ABUZTUAK 4, OSTEGUNA

-20:00. **Udako musikaldia.** Organo eta biola kontzertua: Loïc Mallié eta Karsten Dobers, Santa Maria elizan.

ABUZTUAK 5, OSTIRALA

-16:30. **Odol-ateratzeak**, Luzaro ikastetxean. Txanda hartzeko: 612 402 103 (16:00-20:00).

ABUZTUAK 6, LARUNBATA

-9:00-13:00. **Merkatu txikia**, paseo estalian.
 -18:00. **Pala txapelketa**, Aldats pilotalekuan.

ABUZTUAK 7, IGANDEA

-12:00. **Elkarretaratzea hondartzetan**, presoen alde, Ondargainetik abiatuta.

ABUZTUAK 11, OSTEGUNA

-20:00. **Udako Musikaldia.** Pablo Sorozabalen 125. urteurrena, elizako klaustroan.

ABUZTUAK 12, OSTIRALA

-18:00. **Pala txapelketa**, Aldats pilotalekuan.

ABUZTUAK 13, LARUNBATA

-Deba-Reus topaketa (ikus 14-15 orrialdeak).

ABUZTUAK 25, OSTEGUNA

-20:00. **Udako Musikaldia.** Soinu kontzertua, elizako klaustroan.

IRAILAK 3, LARUNBATA

-9:00-13:00. **Merkatu txikia**, paseo estalian.
 -**FederArte** Surfing Kultura jaialdia.

IRAILAK 5, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, plazan.

IRAILAK 6, ASTEARTEA

-19:00. **Euskal Jaia antolatzeako batzar irekia**, Zuhatzak deituta, Kultureko liburutegian.

IRAILAK 10, LARUNBATA

-Kale-margo lehiaketa.

IRAILAK 17, LARUNBATA

-10:00/11:00. **Debabarrena Orientazio Raida.**
 -11:00/12:00. **Flysch Beltza** igeriketa proba.

IRAILAK 19, ASTELEHENA

-12:00. **Pentsiodunen elkarretaratzea**, plazan.

IRAILAK 24, LARUNBATA

-**Euskal Jaia.** Egun osoko egitaraua prestatuko du Jai Batzordeak (marmitako lehiaketa, zanpantzararak, bazkaria, erromeria...).

Elkartasun-tonbola

-Aurten ere zabalik izango da Caritasen tonbola; abuztuaren 5etik, ostirala, aurrera, boleto guztiak saldu arte. Azken zozketa abuztuaren 26an egingo da. Sagarnatarren lokalean egongo da denda (Portu kalean) eta egunero irekiko dute, 12:00etatik 23:00etara.

XV. Animadeba

-Animadeba nazioarteko animazio zinemaldia izango da irailaren 7tik 10era bitartean zumardiko karpan. Sail nagusian 10 film lehiatuko dira. Horrez gain, Panorama Saila eta haurrentzako tailer eta filmak ere izango dira aurtengoan ere.

Liburutegi eta Turismo bulegoko ordutegia

-**Udal liburutegia:** helduena (9:00-14:00); haur/gazteena (2-6 urte bitartekoak: 10:00-11:00; 7-15 bitartekoak: 10:00-13:00).
 -**Turismo bulegoa:** astelehenetik larunbatera: 10:00-15:00/16:00-19:00; igande eta jaiegunak: 10:00-14:00.

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

Uztailak 30, LARUNBATA > Mutriku

-22:30. **Kantu bat gara**, Zabeli plazan.

ABUZTUAK 23-28 > Elgoibar

-San Bartolome jaia.

IRAILAK 7-8 > Eibar

-Arrateko jaia.



ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: abuztuak 12, 13, 14, 22, 23, 24, 25, 26
 irailak 9, 10, 11, 19, 20, 21, 22.

Burgoa Zuazo: uzt. 29, 30, 31; abuz. 8, 9, 10, 11, 26, 27, 28
 irailak 5, 6, 7, 8, 23, 24, 25

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
 Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI | 669 262 201
 BURGOA ZUAZO | 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 13 eta 20 / irailak 10 eta 17
 BURGOA ZUAZO: uzt. 30 / abuz. 6 eta 27 / irail. 24



Deba
 Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20 info@debaklinika.com
 20820 Deba, Gipuzkoa T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
 Kirurgia
 Inplanteak
 Ortodontzia tradizionala
 Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
 Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

A D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00


ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

ITURLAN, S.L.

Iturgintza-Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

sasoiiko

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14

943 19 24 42

sasoiiko@hotmail.com

GENOVEVA

Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

LIZ-ZK.: 3

TaxiAlain

Deba

Wi Fi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

Seven Clovers

Irish pub

943 191 295

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31 | www.janiretamaitane.com

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan



albisteak
iritziak
agenda
mediateka
komunitatea

